

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Nerea Kortajarena Ibañezek, EH BILDU taldeko legebiltzarkideak eta bozeramaile-ordeak, AHOZ ERANTZUTEKO hurrengo GALDERA hau egiten dio Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu den Beatriz Artolazabal Albeniz andreari Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan, “Laguntzak bai, kontrola ere bai lelopean Bizkaiko Foru Aldundiak martxan jarri duen kanpainari buruz”. Horretarako, indarrean den Erregelamenduaz baliatzen da.

ZIOA:

“Laguntzak bai, Kontrola ere bai” kanpaina martxan jarri du Bizkaiko Foru Aldundiak. Gainera, orain aste gutxi aurkeztu zuen Unai Errementeria Ahaldun Nagusiak Gizarte-zerbitzu eta -prestazioak ikuskatu eta kontrolatzeko plana.

Foru Erakundeak herritarrekin izan dituen bileratan jasotako eskaera sozial baten ondorio omen da plana.

Planaren helburua gizarte-zerbitzuen efikazia eta kalitatea hobetzea omen da, laguntza behar duten guztiek laguntza badutela bermatzeko. Planari esker, gainera, indartu egingo omen dira baliabideen erabilera egokia bermatzeko dagoeneko abian dauden ekintzak guztiak.


Kanpainaren leloak prestazio sozialen inguruan erabat arbuigarriak diren diskurtsoen inguruko beste kanpaina batzuk ekartzen dizkigu gogora, izan ere, antzekotasun handiak ditu eta ia termino berdinetan dago planteatua.

Kontuan harturik, DSBEren erreformarako eztabaida irekia dagoela eta joan den maiatzean eta, legebiltzar honetan, gaiaren inguruko diskurtso integratzaile eta inklusiboak erabiltzeko mandatuak jasoa duela Jaurlaritzak, gaiaren inguruko galdera batzuk egin genizkion sailburuari. Baina, erantzunik jaso ez dugunez, honako galdera hau luzatu nahi diogu Beatriz Artolazabal Albeniz, Enplegua eta Gizarte Politiketako Sailburuari

AHOZ ERANTZUTEKO GALDERA:

Egokia al da, zure ustez, kanpaina hori gizarte prestazioen inguruko diskurtso integratzaileak eta inklusiboak bultzatzeko ikuspuntutik?

Gasteizen, 2017ko azaroaren 13an



Nerea Kortajarena Ibañez

EH Bilduko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea



A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Nerea Kortajarena Ibañez, parlamentaria y portavoz suplente del grupo EH Bildu, al amparo del Reglamento vigente, presenta las siguientes preguntas para su respuesta oral en pleno, a la consejera de Empleo y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal Albeniz, relativas a la campaña que ha puesto en marcha la Diputación Foral de Bizkaia bajo el lema *Ayudas sí, control también*.

JUSTIFICACIÓN

La Diputación Foral de Bizkaia ha puesto en marcha la campaña *Ayudas sí, control también*. El diputado general, Unai Rementeria, presentó hace unas pocas semanas el Plan General de Inspección y Control de Servicios y Prestaciones Sociales.

Parece ser que el plan es el resultado de una demanda social expresada en las reuniones que la institución foral ha mantenido con la ciudadanía.

Se señala que el objetivo del plan es mejorar la eficacia y la calidad de los servicios sociales, para garantizar que todas aquellas personas que necesiten una ayuda, la tengan. Además, se dice que gracias al plan, se reforzarán todas las acciones que ya se llevan a cabo para garantizar el uso adecuado de los recursos.

El lema de la campaña nos recuerda otras campañas con discursos totalmente repudiables sobre las prestaciones sociales; la similitud es grande y está planteado casi en los mismos términos.

Teniendo en cuenta que se ha abierto el debate para la reforma de la RGI y que el pasado mes de mayo y, nuevamente, durante los últimos días el Gobierno ha recibido el mandato de este Parlamento en el sentido de utilizar discursos integradores e inclusivos cuando se hable de este tema, formulamos una serie de preguntas a la consejera, pero como no han sido respondidas, queremos hacer la siguiente pregunta a la consejera de Empleo y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal Albeniz.

PREGUNTA PARA SU RESPUESTA ORAL

¿Le parece adecuada esa campaña desde el punto de vista del impulso de discursos





integradores e inclusivos sobre las prestaciones sociales?

Vitoria, a 13 de noviembre de 2017

Nerea Kortajarena Ibañez

Parlamentaria y portavoz suplente de EH Bildu

